

## Martin Ugalde: "Itxaropena sortzen dit euskal prentsak"

Iban Arregi

*Euskaldunon Egunkaria*, 1997-06-27.

Martin Ugalde-ri eman diote aurten Rikardo Arregi Kazetaritza sariko ohorezko aipamena. Epaimahaiko idazkariaren hitzetan, "Martin Ugalde aitzindari izan da euskal kazetaritza profesionalizatzeko bidean". Ugaldek atzo gogorarazi zuenez, duela 50 urte Euskal Herrian ezin zen kazetaritzarik egin, ez euskaraz, ez eta gaztelaniaz ere. Horregatik joan zen Venezuelara: gaur egun, euskal kazetaritzaren egoera ikusita, "itxaropentsu" dagoela esan zuen.

Ugaldek, halaber, Joseba Laka eta Joxemi Zumalabe Euskaldunon Egunkariaren bultzatzaileak goraiatu zituen. "Haiek Egunkariaren alde eta, oro har, euskal kazetaritzaren alde eginiko lana eskertzekoa da". Rikardo Arregik ere bere lekutxoia izan zuen omenduak eskainitako hitzaldi xumean: "Hura ezagutzeko parada izan bainuen".

Bere euskara hobetzen lagundu ziotenei, bestalde, eskerrik beroenak eman zizkien: "Andu Lertxundiri [sarietako epaimahaikidea] nire euskara idatzi pobreaki buruz hitz egin nion, nire erdara euskalduntzeko esanez". Ugaldereen hitzetan euskara literarioa hobetzen jende askok lagundu izan dio, eta, besteak beste, Juan Mari Torrealdai, Garmendia eta Fermin Olaskoaga aipatu zituen. Azken hori beti beretzako lanean jardun zuela esan zuen. Ezin izan zituen ahaztu, bestalde, Egunkariako lagunak eta Andoaingo Udala.

Andoaingo Udalak eta epaimahaiak kazetariaren iragana eta etorkizuna uztartu nahi izan dituzte ohorezko aipamenaren bidez. Nolanahi ere, erabakia hartzeko orduan hiru arrazoi azpimarratu zituen epaimahaiak: batetik, erbestean zein Euskal Herrian martin Ugaldereen kazetari senak lekuan lekuko izaten jakin duela; bigarrenik, aitzindari izan dela euskal kazetaritzaren profesionaltasun bidean; azkenik, garai bateko euskal kazetaritzaren ekarria eta gaurko kazetaritza berriaren premiak uztartu dituela. Ekitaldira etorritako gonbidatu nagusiak, Josune Ariztondo EAEko Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, Ugaldereen merezimenduak glosatu zituen halaber.

Rikardo Arregi sarietan hirugarren aldiz egin da aurten ohorezko aipamena. lehen 1989an izan zen, *Eskualduna* eta *Herria* Aldizkariarentzat. Bigarrena iaz, 1936-37ko gerra garaian eta lehenago jardundako euskal kazetariei egin zitzaien. Hirugarrenean izan da Ugaldereen txanda.